

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA. DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Pamplona - octubre - 1966

DIRECTOR: J. E. URANGA

Soraurengo erria, IKASBIDE

Sorauren erritoxa Ezkabarteko Ballean dago, Iruñetik bederatziko kilometrorara, Orikain eta Olabeiko errien artean, Baztan eta Frantziako bideberrian kokatua. Erregebide onek Sorauren erditzen du eta onengatik bide-tik pasatzian erriko etxe guziaz errezki ikusten dira.

Orain Sorauren errixa onek badu bere sona, bere pama eta ospe aipagarria aspaldian etzeukana eta arestian lege onez eskuratua. Bi urte badi-tuela erri onen semeek, gogoz eta gorputzeko indarrez alegiñik, erriko edertze-lanari eutsi ziotela, «auzolan» lanegikeraz, eta diruz «Caja de Ahorros» delakoak emandakoa. Lanak, jarraiki, ateragabez, illabete batzuek iraun zituzten eta azkenean Sorauren, txukun, apain, eder, begien atsegingari agertu zan. Ikasbide berezia Soraurengo erriak eman duena Naparroko erri geienentzako!!

Sorauren lirain onek yoan den udaberrian Diputazioaren partez ordaintze eta premia jaso zituen. Eun milla pezetako sari bat Diputazioaren «Estetikarako Laguntza» batzar delakoak bialdua, eta gañera bertako Alkate yaun den Andres Gurbindok agerkaia eta medailla (diploma eta doña) artu ere bai.

Naparroko Fuerodun Diputazioak, «Estetikarako Laguntza» Batzarraren medioz, urteoro zeingeiago bat, txapelketa bat antolatzen du Naparroko errietarra ederlanak zabaltzeko, gure Lurraldeko txoko guziaz garbitzeko, baxerri eta auzoak txukuntzeko eta etxeak pintatzeko, zuritzeko. Ia bada, dadorren urterako, 1967 garrereako gure erriak eunaka beren bazter eta etxeak eraberritzen dituzten txapela, premia, irabazteko.

Bi foto, edo argazkien bidez, soraurendarrek egindaño lanak ikusiko dituzue, eta nolako lan polita bertakoek egin dutena: Eliza, etxeak karrikak, bazterrak, pelota-plaza, arrizko zubi zabarra, bideberriko er-tzak eta dena xarmanki, arrituki, ber-ritu eta moldatua.

Erri onen bezelako bidean, Jaungoikoari eskerrak, napar erri auniz badoazi, zorionak ok guziera. Gaurtik aintziñean Naparroan itz berri bat badugu gogoan izan bear duguna: «Soraurendu» aditza. «Soraurendu dezagun» bada gure Lurraldea, gure Erreinu zaharra, baño orretarako, Naparro guzia «soraurendutzeko», edertsasunaren amodioa, garbitze zalestauna, gozo onaren borondate, naia eta gogoa, «Naparro garbiago eta politago baten alde», napartar guziei erakutsi bear dizkiotegu.



Mundu zabalean

Viet-Nam, beti bezala makurrago ez bada. ONU delakoaren babesean bildu dira New-Yor'en errialde guzietako zuzendariak, zerbait egin beharrean. Oraindikoaurreramentu gutxi ikusten da.

Txinan ere, aspaldi egosten asiak ziren Rusiaren kontrako babak, irakiten ari dira. Batean «Guardia Gorririk», eta bestean ruso-txuriak, iduri du ez dagola konpontzerik. Alare obe izango, makil autsiarekin ez sartzea.

Arte ortan Rusiak —edo Urssiakoak—, Sarraldera begira begiak botarik daukate. Nunbait ez gera lehen bezain gaizto! Edo, otsoaren belarriak ikusi dituen ardiaren dako, txakurraren aginak on!

Erri aberatsenen dirua ere odol-husten ari! Gauzak gero ta geiago balio badute, diruak kemena galdu duelako marka... Eta azkenean, dolarra ere asia omen dugu bide kaxkar ori artzen. Zer da, gure inbidiatzen asia?

Kongo aldeko nasketak, Afrikan eta Indonesiako ezin-egona, Asia behean, aski ez direla, orai Brasil dugu Ameriketara pizten asia.

Ikatz-txondor gehiegi gaurko munduan! Ez dezala suak ohiana arrapatu.

Desgraciadamente continúa con gran violencia la guerra del Viet-Nam pese a que en la reunión de la ONU en Nueva-York se han iniciado actuaciones por parte de muchos países del mundo para llegar a un final.

En la China comunista continúa una exarcebación de la actividad violenta y de carácter militarista, advirtiéndose cada vez más la separación ideológica de este País con Rusia.

Rusia en cambio parece acercarse cada vez más a los países occidentales.

Muchas naciones del mundo civilizado padecen en estos tiempos problemas de fuerte elevación del costo de vida y de inflación. Este fenómeno ha llegado también a los Estados Unidos.

Continúa la inestabilidad en el Congo (Africa) e Indonesia (Sudeste Asiático) y Brasil (Suramérica). Estos países tienen un gran porvenir por sus riquezas potenciales. Pero falta todavía cultura y madurez política.



Españako gauzak

Oraikoa Españak ere zeruan sudurrak sartu ditu; sudurrak eta anka sartu daizken zeru txikian esan nahi dugu. Bestean ez da ain aisa... «Karabela» du Españako zirtak (coheteak) izena. Kristobal Kolon heldu zait burura. Laurogei kilometro-gora joana izan behar zuen. Asiera ona. Sanferminetako etxajulak baño askoz gogorago.

Baño, dena esan dezagun; denboraren gora-berak sumatzeko bakarrik eginak izan behar dute «Karabela» tresna oiek. Ori gauza ona da, mendira joatekoan, bus ti behar dugun jakiteko.

Dirua teila azpian sartzeari, diru gordeketa esango diogu. Diru gordetzearen aldekoak ditugu gure agintariak. Diru orren bidez bizitegiak eskuratzeko lege bat asmatu omen dute, eta laguntza aundia dateke. Jakin nahi duenak, diru-etxe (bankotan) galdegin behar du. Eta gero, teila-petik dirua atera; bestela ez dago etxe berririk...

Diotenez, oraiko jokabide berrian, 1.º) Gobernuak gastuak ttipituko dituzte. 2.º) Diru-gordetza (ahorroa) lagundua izango da eta, 3.º) Nekazariak eta aziendadunak ere artuko dute beren esku-ukaldia. Zerbaiten beharra badute!

Gibraltar, lengo lekuan...

Ayundamendu eta Diputazioak ere laister berri beharrak dira.

Nuestra Patria entra en el mundo científico de los cohetes espaciales al haber lanzado el llamado «Carabela» que subió 80 kilómetros en el espacio. Su finalidad es la investigación meteorológica.

El Gobierno publica importantes disposiciones para estimular el ahorro. Entre otras figuran el sistema de ahorro-vivienda según el cual los ahorradores obtendrán importantes préstamos para adquirir su hogar. Las dos Cajas de Ahorro y los Bancos de Navarra informarán a los interesados sobre estas ventajas.

Se advierte en conjunto una nueva política económica del Gobierno cuyas notas principales son: reducción de los gastos públicos, creación de más ahorro y establecimiento de ayudas a la agricultura y ganadería en el 2.º Plan de Desarrollo.

Se anuncian grandes obras de carreteras en la región catalana.

Sigue vibrante el problema de Gibraltar.

Y se dan las normas para el próximo período electoral que afecta a los Ayuntamientos y Diputaciones.

Se informa que el movimiento turístico ha aumentado en más de un 20 % con relación al año pasado.

Gure jokabidea

Naparroan zer-edo-zer ari gera eskuararen alde. Lan batzuk ageri dira eta beste batzuk ez. Alare, gure jokabide au aski alda? galdegin ginezake.

Edozein diru-jokabidetan, galte eta irabazien arteko koxka da, bakarrik, balio duena. Ari begiratu behar zaio. Eta zoin ote da euskeraren aldeko gure lan guzieren irabazia?

Askok ez dute jakin nahi. Begien aurrean dut norbaiten erantzuna. Erriz erri gure eskualdunek zer zioten ikusten eta aztertzen ibilia nintzan. "encuesta" gisa lantxo bat egiteko. Asteroko jator eta maitearen-ganik izan nuen erantzun au:

"Ondo dago lenbizi gauzak zertan dauden jakitea; baño irakurleak eta eskualtzale geienak aspertuta daude... artikulatu batzuegatik".

"Orregatik, barkatu, baño naiko pesimismo badago gure artean eta utzi dezagun geiago kalterik egin gabe. Jarri erre-medioak, oiek bear ditugu ta". Bapo mutilla!!! Ehiztaria ikusi ta leporaño burua estaltzen duen egaztia heldu zait gogora...


Gure ustez, ari ginen lanean; eta ari gera orai ere! Lehen esana; ez ditut lan mota guziak aipatu nahi. Bihotzez poztu gintaizke beste bazterretan gu baño obeki ari direla jakitez... Alare, kezka or dago: "gure jokabide au aski ote da, gaur, eskuara maitearen etorkizunaren-dako". Edo beste modu batera: "irabazian hala baldin ote gabilz, Naparroan?".

Eta ez naiz orai mojatxoan joku txarrez mintzo. Budin kerako maisu eskualdunak ere alde batera uzten ditut. Eliz gizez ari naiz.

Gure erri eskualdunetara apez erdalduak datozela ikusi ta: lendik daudenak, elizan erdaraz bakarrik egiten dutela jakitean, gure jokabidea eztela aski esan behar! Eta ez hori bakarrik: alper-alperrik dela, gañera, egiten den guzia.

Ez dela apez eskualdunik aski! Eta ditugun oietatik bana-ka banaka bazterretan ari! Amalau, amasei apez eskualdun batitugu Iruñen; Bizpairu bai, Seminarioan ere. Eta orai, apez eskualdun gaztea eskualerritik atera ta, Seminarioa! Eta karpora joan zaizkigunak?

Bost duro aurreratu ta amabost azpitik joaten ba zaizkigu, pesimismorik gabe, "realismo" oztaren izenean esanen dut ez dela aski gure jokabidea. Eusker a hilen da. Au da gure koxka.



ELIZAREN ITZA

Batikanoko II batzar nagusia

Jainkoaren Eliz bakar ontan, sortu ordukoxe, autsi-urratu batzuk egin ziren (Ikor. II, I-19) Apostoluak gogorki gaitzesten ditunak, gerozko alditan, ordea, makurragoko inki-mankak lertu ziren eta Eliz Katolikoaren barrunbetik barratu ziren bazkide franko, aldiz, bi aldekoen erruz. Baño, orain Xristoren fedean jaita ta azitzen direnak, berexitako Bazkide oien barruan, ez ditezke jo berexkuntzako pekatuaren errudun, eta Eliz Katolikoak senide bezela, begirunez ta maitasunez besarkatzen ditu: Kristogan sinisten dutenak eta bear bezela bataiatu zirenak, zerbait, naiz ez era bat, erantsita, itxekita gelditzen baitira Eliz katolikoari. Aiz zuzen, Eliz katoliko ta beraien arteko berexkuntzak direla ta, naiz sinisgaietan, naiz jokabidetan, naiz eliz-joskeran, oso-osoko batasunarentzat eragozpen franko, aitz larriak aldiz, jasotzen bait dira, batasun pokerak (movimiento ecuménico) urratu nai lituzkenak. Alaz ta guztiz ere, bataioko fedeak santuturik Xristori erantsita gelditzen dira, orregatik kristau izena artzen dute eskubide osoz ta Eliz katolikoaren semeok aitorzen ditugu legez senide bezela Jaunagan. (D. E. 3)

Gero aipatzen ditu Eliza katolikoaren barrenen ez egonagatik dauzkien salbabeak. «Jainkoaren itz idatzia, grazi bizitza, sinis-men itxaropen ta karidadea, Espiritu Santuaren barreneko doai batzuk eta agiriko gaiak; au dena, Xristogandik sortu ta Berarengana daramana, Xristoren Eliz bakarrari legez dagokio».

Anai berexiak kristau religioaren gurtza askotxo betetzen dituzte, eta auek, era frankotara, Eliz edo elkarte bakoitzaren arora, ernarazi ditzateke, zalantzik gabe, grazi-bizitzak, eta aitortu bear da zeruko sarrerarako egokiak direla. (D. E. 3).

Begira Eliz Batzar Nagusiak dionetik, zenbait katolikok esaten zuenera zer alde dagon! Okentzat Eliz katolikoz atakoak, arsenalotik sakabanatutako ardi galduak, mahats igarrak sutarako diosalik ere opa ez lakiekenak... Eliz Gurasoentzako, bien-bitartean, uste onean dauden senide berexituak, berexkuntzaren erru gabeak, Xristoren grazi bizigarria iduki dezatekenak, zeruan elkarrekin bildu ahal giñezkenak...

(Jarrituko da)

SOLAS TA SOLAS

Marik: Zuen etxean egun oketan daukazuten neskatz ori, nungoa duzte?

Engraxik: Ez al zera oharatu? Gure osabaren alaba duzu.

M.: Arrazoi duzu! Azi bai azi neska! Bere indar oiek, lanetik diru aunitz aterako du?

E.: Orai asi bearra...

M.: Baño... oraindik sos bat ere irabazi gabe adin ortan?

E.: Orai arteko urte oketan, ikasten ibili da: emendik goiti, bainkoa lagun, lanean abiatuko da.

M.: Eta ainbeste urte ikasten... nitz zor dabela errateaz lotsatzen ez dana.

M.: Au ere badugu? Ximixta! Zer ateratzen du ainbertze itzkuntz iakinenez?

E.: Zer ateratzen duen? Itzkuntzak iakiteakin bakarrik, deus guti: itzkuntzekin batean bertze gauz batzuk ere ikasi dituen bezala ikasteakin, aunitz.

M.: Zu ta ni bezalako baserritar-rrak eta baserritarren umeak ez deka orrelako gauzik ikasi.

E.: Aski ongi dakizun bezala, zu ta ni bezein baserritarra da gure osaba: ta aren umea da neskatz au. Baserritarren buruetan ere laungoikoak argia iartzen du. Argi ori, itzaltzera utzi bearrean, sendotzea da neskatz unek bere guratsoen laguntzakin egin duena. laungoikoak emanako argi eder ori itzaltzera utzi dugun aunitz baserritar ez al guren nago.

M.: Baliteke, baliteke: baño ikastera doazen baserritarrek, arrotuta datorz; beren erriar nekazarietaz irri gogotik egiten dute!

E.: Ez denek: gure lengusinek, gutiagor. Pozik ari da nekazantzan; eta baratzako bere lana, ikustekoa da. Danok elkarren bear gerara, bein baño geiagotan entzun dugu etxean bere agotik.

M.: Ez dakit bada... ez dakit bada...! Nere alabek diotenez, naiko bazterreratze eraman bear omen nekazalagoko umeek...

E.: Begira: utsarte aundi bat dago nekazari ta bertze oien artean: auxe da gure istillu gorria. Zu eta ni bezala, Auzpegiko ta Xarako nagusi-etxeokandreak eta beren seme-alaba geienak, eziakiñak eta lanean lehertzen: Auzpegiko Joxe, «beterinario»; ta Xarako Mirentxu, «enfermera». Biok, beren etxekoeri eta guri gainbehera begira; eta gu... petik-gora, ek ezin ikusiz eta ekena ezin eramanez. Auzpegiko eta Xarako bertze umeek, eskola geixago izan zezaketan, nik uste, beren ta Joxe ta Mirentxuren tarteko utsarte ori obekixago bete arkitzeko. Ta zuk eta nik ez badazakegu eskoiik ikasi, gure umeek bedere ikasi be-

zate geixago, gutaz eta gure ume-etaz irri egiten duten oiek ixildu ditezten, eta gure iendaki iakintsu alfer-gastu ez zaizu?

E.: Zuk bezala uste nuen nik ere: baño neskatzaren erranakin, eta nerau berebaitan agertzen dan ez dakit zer batean oharitzen, nere ustea ustela zela ikusi dut.

M.: Zer erran datzu neskatzak? Zer ikusi duzu berebaitan, urte oiek alfer-gastu ez direla izan zuk neri errateko?

E.: Begira: nere lengusin unek, lenbiziko dirua non arkituko, gu bezala asi balitz, pera bizi guzian, laungoikoak emaneko argia zokoa idukiz, gu bezala lan arrontetan ari bearko luke. Guratsoek lagunduz, bere buruari gogor egiten iakin izan du: dirua eskuratzea, geroko utzi du: iakitzea bildu lehenik: iakitateak, era aunitzetako lanak egiteko erraztasuna ekarri dio: berak nai duen lana autatzeko eskubidea dauke orai; ta ongi saritutako lana gañera: guk, lan bat bakarrik dakigu ta xakarki: guk, lan unen ondorioa, nekea ta ezintzea; neskatz unek, bizitzak laguntzen badu, kezka gabeko xahartze goxoa.

M.: Ba! Itz ederrak! Urte oketan guzietan, beti liburuen artean egonez, diabrurik ez badu, kalia aski berotu ta naikoa ikasi izanen du?

E.: Ez da beti liburuen artean egon. Urteoro bakazio ederrak izan ditu. Bein baño geiagotan unat ere etorri izan da, zu ez oharatu arren. Ta... berak diona, entzutekoa batek bere atsegineko gauzak autatuz, bertze lanetan bezala buruzko lanetan ere nekearen bat poz artzen duela dio: atsegin zaizkion lanak autatu dituanek, aunitz eta pozik ikasi du.

M.: Zer gauz ikasi ditu bada? Emazteki batek, guk baño geiago zer?

E.: Ez ditut gogoan artu: berak ikasitako gauzen izenak ez ditut ezagunak; arrotzak dira neretat: bost itzkuntz darabilzkiela dakit bakarrik.

M.: Ba! Geroztik zuen lengusin orrek euskera aspaldi zokora utzi zuen...!

E.: Ez! ez! Zu bezein euskalduna da: ez baliz, nola itz egin nerekin? Burutik zangapuntaraño euskalduna: euskerari esker bertze itzkuntzak ikasteko erraztasun aundia izan duela aski garbi diona: euskaldun azi zutelakoz, guratsoeri aunitz eta autan on unek eta unen antzekoek, beren errietaz eta errikoetaz poz aundi-aundi bat artu dezaten. Nekazari ta mediku; nekazari ta apez; nekazari ta abogadu; nekazari ta banke-ro; nekazari ta notario ta sekretario...: tartean, deus: unek porrokatzen gaitu. Eta kontuan ar zazu: nekazariaren izenakin eziakiña erran

nai dut; eskolagabea; «impreso» errax-errax bat betetzen ez dakiena. Nekazari bakoitzari laungoikoak behar duen argia eman badio, nekazari bakoitzak, lurreko ta etxeko 'anetaz gañera, bertze gauzterako aisetan geiago izatea bearrezkoa duela nago. Orduan ez giñazke bertze oien aitzinean lotsatzen garen bezala lotsatuko.

M.: Arrazoi duzu; arrazoi duzu: paper pusken bat bete bear badugu, antxe guazi ilun-ilun «sekretario-arengana»: ta dakizun bezala, oiek ez dute «alfer-letrik» egiten...

E.: Ai, enne! Au kixkal urriña! Banoa sukaldera! Nere eltzekari goxoa...!

«IBARRONDO»

Doneztebeko umien euskal besta



Urrillaren bederatzik egunean Donezteben Diputazioak eraturako umientzako Euskal besta izan zen, inguru errietako neskatz eta mutti koei premioak banakatzeko euskeraz ongi zakitelakoz.

Doneztebeko pelota plazan lau t'erdietarako gendex beterik zegoen; bereziki Beintza, Labaien, Urrotz, Oitz, Donamari, Gaztelu, Doneztebe, Elgorriaga eta Iturengo gaztetxoak an zeuden beren Apez, Alkate eta gurasoak lagunduak.

Atsaldea epela zegoen, eguraldi ona beraz eta Maipuruak bertako Apeza, Alkatea, eta beste gañeraño lagunak, Iruñetik etorritako Diputazioaren ordezkariak, Aita Olano

Apezpiku Yaun Txit Agurgarria... eta Besta bukatzen zenian Diputado den Mikel Xabier Urmeneta etorri zen. Programa guztia egin zuen: Lenbiziko Iruñetik dantzariak euskal dantza batzuek ager erazi zizkiguten beren ariñtasun eta trebetasuna oso ongi azaltzen.

Gero Iruñeko bizi den Pedro Diez de Ulzurrun Apez yaunak euskerazko itzaldi ederra esan zuen bestari buruzko zegokiona. Oso ona izan zen apez onen esanaldia eta guzoi euskeraz mintzatzeko, maitatzeko, indartzeko, Naparroko Diputazioak nai duenez, eskatu zioten.

Ondorean Premioen Banaketa egin zen, 465 premioak banaturik. Aur

bakoitzak «Caja de Ahorros de Navarra» dalakoaren berreun pezetako kartilla bana, diploma eta gozuak artu zituen, Naparroko Diputazioaren partetik euskeraz yakiteagatik, zorianak eta eskeronak beren aitamei ematen gañera, ain ondo beren seme-alabei gure aintziñeko mintzaera maitagarria erakutsi diotelakoz.

Gero berriz Iruñetik mutitxo eta neskaitillak euskal yokuen agerketa egin zuten gende guzieren gustora izanik.

Bitartean Iruñeko euskal kontu esale famatua den Peru Txiki far eragiteko eran ari izan zan.

Azkenean Leitzeko bertsolari txiki batek bost bertso kantatu zizkigun euskerari buruz eta bestari zoazkiotenak konponduak. Txalo ugari gure bertsolaritxoak entzun bear zuena. Zorianak Azjipiroz txikiari.

Bukatzeke Urmeneta Jaunak itzalditxo batean, «itz bi batean», euskera goratzeko, jasotzeko, esan zigan danoi. Ona beren itzak euskeraz esan zituen bezelaxe: «Naparroko Diputazioak nai du euskera goratzeko».

Ala izan bedi esaten dugu guk, eta emendik aurrean ia Donezteben, alde ontako errietako neskatto eta muttikoien moduan, umiek euskeraz mintzaten ikasten duten. Eta au esaten dugu: Donezteben euskera aul eta gaixo dagola. Uste dugu, ziurki gañera, Doneztebeko gurasoek, Agintariak, Erretoreak, al duten guzia egingo dutenik euskeraren alde. Doneztebe «euskeraren aldeko lanari lotu dedilla» gure azkeneko itzak dira, euskal izkuntzaren eta Naparroaren onerako.

AN ZENA



AITA MURIETA ZANARI

MIKEL AROZAMENA LESAKAKOAK JARRIAK

1
Uztaroaren illian geunden
eta amairu egunak
euskaldunentzat etorri ziran
notizi txar da illunak;
Aita Murieta nolatan il zan
deiturikan Goiko Jaunak.
Piska bateko pena badegu
ezagutuzten gendunak.

2
Irurogeita beazti urte
pasa dituz munduan,
amaika bider zu ta ni biok
alkar ikusi genduan;
nerekin beti portatu ziñan
praile jatorran moduan,
argatik dakit egongo dela
Zeruko Aitan onduan.

3
Murietako errian jaito
ta euskeraz etzekiña,
baña bera gero saiatu zan
ikasitzen alegiña;
nunbait barrendik sumatzen zuan
euskaldunen odol piña,
obe genduke ura bezela
denak saiauko bagiña.

4
Bertsolariak nun izango ta
beti an gendun atzetik,
nunbait euskara maitatzen zuan
buru eta biotzetik.
Txapela burun, bizar aundia,
karteratxo eskutik,
Euskeran alde amaika eginda
juana zera mundutik.

5
Umeen deia egiten zuen
eta zabaldu erritaa,
ordaindu gabe bialtzen zuen
aurtxoak zauden tokitaa;
arentzat pozik aundia zan
euskal kontak bialita,
neonik e bialdu izan nizkan
bertsotxo batzuk jarrita.

6
Iru urtian gaizki egondu
ala negon adittuta,
eta oraitzian jartzen zitzaidan
biotza erdibittuta.
Orain beste mundura jua zera
guzion aitak deittuta,
beti betiko sendatu zera
emen asko suprittuta.

7
Zure izena jarriko det nik
merezki dezun bezela,
pentsa dezagun Murietagan
oroitutzen geradela,
biotz barrendik maitatzen zendun
gure izkuntzan epela;
iruritzen zait oraindik ere
gure artian zaudela.

8
Jaioterra maitatzen zendun
beste edozeñek añian,
orregaitikan saiatu ziñan
ainbeste urtez lanian;
bein baño geiotan zure noski
aiko ziñan eziñian,
orain Zerutik laguntza egiñ
gu estu gabiltzanian.

9
Azkeneko aldiz zakin izketan
ni lruñian egonik
eta orduan esandakuak
gaur re goguan ditut nik.
Esan zenidan: «Ementxe nago
zutikan egon eziñik,
eta nere gorputza onetan
eztet izango gauz onik».

10
Nik eziñ nitazke emen jarri
zuk esandako guziak.
gauz asko ditu Arozamenak
zuregandik ikasiak;
iru urtian argaldu zaitu
zoritzarrez minbiziak;
beti irriparez itzegiten zun
naiz ta egon oñaziak.

11
Euskeran alde saiatu ziñan
emen ziñaden artian,
zure lan ori etzan izandu
iñorentzako kaltian.
Iragarri bat jarriko nuke
zure etxe paretian:
Aita Murieta nolakua zan
kontun erori gaitian.

12
Aita Murieta gu utzirikan
aldegin dezu mundutik,
gure Jainkuak eraman zaitu
geio ez supritziatik,
eta nik auxe eskatzen dizut
biotzan erdi erditik:
lñoiz premian izaten gera
lagun gaitzazu zerutik.

“UDA AZKENA”

Joaquín Aldave

1

¿Zeñek lezake ongi
margotu Uda-Azkena?
Lau sasoyaren artian
zalantzik gabe onena,
egitan da neretzat
askotxoz goxuea.

5

¿Nola erraz zenbatu
daukazun ontasuna?
¿Nola neurtu liteke
zure aberastasuna?
Jarri diguzu eskutan
amets egiñ genduna.

2

Agur erran ta Udara
aldendu da aurtengua.
Itxo ingo diogu pozik
datorrenian urrengua
ongi etorri emanaz
maitagarri barrengua.

6

Errosario illian
epel-epel aiziak
ballakatzen dituzte
maitez emaitaliak.
Ontzen ditu guztiyak
baudezen ere eziak.

3

Aitortu zagun danok
zerala, Uda-Azkena,
biyotz guztiyen poza;
begiyan gozamina.
Orrenbeste emaitza
ez dira iduripena.

7

Bildu dira kosetxa,
arto, sagar ta illarrak,
gaztañ, mizpirra, udare
gozo ta igar-igarrak.
Fruitu abek, egitan,
dira urre-zillarrak.

4

Eman dizu Udarak
ugari eskupekua.
Bete lezakezuke
gañez zure kolkua.
Alai egon zindezke:
auxen da zure ordua.

8

Danok jarri ditzagun
lur aldetan begiyak
ikusitai baitugu
sendo diran egiyak.
Ereñ azi berexik:
Moztu lar ta sasiyak.

NAPARROA'KO BERTSOLARIEN SEIGARREN AZKEN TXAPELKETA NAGUSIA



TEATRO GAYARRE

Azaroaren 13 egunean Goizeko amaika t'erdietan

Naparro'ko Diputazioaren «Principe de Viana» Elkarteko «Euskeraren Alde»-ko Saillak eratu «Euskaltzaindia»-ren laguntzarekin

Saio ontan parte artuko duten bertsolariek auek dira:

Mikel Arotzamina, Lesakakoa.
Andres Narbarte, Goizuetakoa.
Battista Madariaga, Arantzakoa.
Mañuel Arotzamina, Lesakakoa.
Aingeru Aldatz, Udabekoa.
Mattin Oreja, Errazkingoa.
Dionisio Mugica, Asteasukoa, baño orain Lesakan bizi dena.
Martin Goikoetxea, Gorritikoa.

SARIAK:

Txapeldunak: Iru milla pezeta, ta txapela.
Bigarrenak: Bi milla pezeta.
Gañerakoek: Milla pezeta sari bana.
Sarrerak (Teatrora sartzeko txartelak) egun bereko goiz amarratetik Teatroko takilletan salduko dira.

SARREREN SALNEURRIAK:

Beko jarlekuak: ogeitabots pezeta.
Palkoak: amabots pezeta.
Azken mallakoak: Amar pezeta.
Txapelketa onen geratzen diren bi lengoak Naparroaren partez
Euskalerriko Bertsolarien Azken Txapelketa Nagusira joango dira.

LANERA NOA POZIK...

— 1 —

Baratz-iabea zegon
baratz bazterrean,
ain goxoki atsedean
artzen itzalean,
nekatu ta auldurik
ordutan lanean.
Bi gizon koxkor berriz,
eletan bidean,
oharzen dire laister
baratz ederrean.

— 2 —

“Baratz onetxen lurra,
lurretan onena:
eder ta txoragarri,
emen dagon dena:
zitu bakoitza, beti,
dator ain gizena...
landareak lerroan:
ze lerro zuzena!
emen agertzen daku
lurak bere almena”.

— 3 —

Auxe zioten elkar
gizon koxkor aiek:
nola bat, ala berze,
baratzen ezkaiek:
beren lurak zeuzkaten
sasiez iosiek:
bizkitartean berak
“juez” kontu asiek...

— 4 —

“Baratz unen iabea
ez da gaizki bizi!
Mundu unten badire
zenbait “injustizi”.
Norena ote genuen
baratz au lenbizi?
lñondik lotpiderik
balitza, ez izi:
lur untaz gaude beti
gose ta gutizi...”

— 5 —

“Pikorik egin gabe
egun os-osoa,
baratzetik etxera
beti, zaretxoan,
darama, sukaldeko
zer dauken gogoan.
Alfer unentzat, nonbait,
zori au zegoan.
Gure baratzak, berriz,
asoñak mokoan”.

— 6 —

“Ikusten banuke nik
iabe alfer ori,
egi batzuk oraintxe
sar niozke gori.
Baita nik ere pozik,
ez dedin erori
infernuen, ta beti
sutan bizi gorri,
Lur au ez dio lanak
berexi iñori...”

— 7 —

Baratzeaña txutik
agertu danean,
bi koxkorak badoaz
igesi naiean.
Baño oi u batekin
iosirik lurrean,
egiek entzun bear
ixiltasunean.
(Ikasiko al dute
oraintxe lanean!)

— 8 —

“Gizon koxkor, mukizu,
alfer, iringarri:
baratz bazter untara
nork zaituzte ekarri?
Baratz au edertzeko,
lana ta ongarrri.
Zuenak ere, berdin,
daitezke, bai, iarri.
Ez, naski, zuen esku
utziz, elegarri!”

“IBARRONDO”

— 9 —

“Zuenak ta nereak,
lur berdiñarekin.
Zuek, begiratu ez:
nik, al guzi egin.
Lurra ongi ibiltzen
beti saiatzekin,
lanak ontasuna du
ekartzen berekin.
Ele-alfer, itzketak,
lurak asoñekin”.

— 10 —

“LANERA NOA POZIK
erran biotzetik,
ta lanera goizero
atera etxetik;
izerdi aunitz eman
zuen kopemetik;
garbitu, bear denean,
zikin gaistoetik;
ontasuna artzeko
zuen baratzetik”.

— 11 —

“Lana egiten dunak
artzen du saria.
Garia erein, molda;
zuretzat ogia.
Lanak eman datzula
neke, atsekabia?
denendako berdin da
lanaren zoria:
lanerako eman du
lainkoak bizi”.

— 12 —

Aski ongi mintzo da
baratzezi ona.
Lanerako eman du
lainkoak gizona.
Danontzat datorkigu
lanatik zoriona.
Zorionsua lanetik
bizi den persona:
LANERA NOA POZIK
biotzez diona.

mendiiz

BI APAIZ ALPES-KO MENDIETAN

Ipar - Amerikako artzaia



Bear bada, aunitzek ezagutuko duzute, aditu bedere, or zuen artean idaho'n bizi den apez bat, Santos Rekalde Jauna, bizkaitarra.

Orain dela bortsu urte yoa zen Ameriketara ta or Idaho'n, erri txiki batean apez egondu da. Baño ezta Amerikanoel utsal serbittu, baizik batez ere euskaldun artzaiei; au zen bere lenbiziko asmoa yoatekoa, eta ala izandu da ere. Orrengatik erran dut asieran bear bada aunitzek ezagutuko duzute-la. Baño orain emen daukagu España'n, denboratxo bat pasatzera etorria bere famili tartean.

Nik ezagutu nuen Iruñe'ko Seminarioan. An eman zigun esanaldi edo itzaldi bat zuetaz; eta mintzatu zen argi ta garbi zuen lanaz, zuen bizi gogorrez, zuen irabaziaz, zuen erreljio ta bertze gauz aunitzetaz ere bai. Gañera Madril'go «Vida Nueva» deitzen den errebista batean agertu da apez orreri egindako elkarizketa bat. Gauz berberak erraten ditu. Orrengatik iduritu zait zuei interesatuko zaitzuela yakitea zer pentsatzen duen apez orrek, zuen artean bizi den apez onek, zuetaz, zuen lanaz eta bertze problema guzietaz.

«Lendabizi, erraten du, zuen lana agitz gogorra dela, eta iru urtez lanean ari zeratela gelditu gabe, bakaziorik eta deus gabe. Eta erraten du Bilbao'k Konsulari eman diola paper bat, informe bat, erranaz zuen kontratuan badirela uts, fallo aundiak, eta zuendako kaltegarriak. Fallo bat da bakaziorik ez izatea (bertze amerikano guziak badituzte). Beste uts bat da sobera lan egiteazten dituzela. Omen dira zuetatik aunitz goizeko seietan asi ta arratseko amarrak arte lanean ari direnak; legeak berriz manatzen du arratsaldeko seietan edo lehenago lana utzi bear dela. Erreljioz mintzaten delarik erraten du traba aundiak dituzutela: ia urte guzian mendian urrun bizi zeratelakoz, baño geienetaz agitz kontent omen da. Ez omen ditzute atzentzen erreljio eginbearrak eta omen dira ere egunero Errosarioa errezatzen duten euskaldun artzaiak».

Auxe da itz guttietan, Santos Rekalde Jaunak zuetaz erran ziguna. Orain aguro yoa bearra da berriz zuen artera, zuei laguntzeko gogo onez berririk. Eta auxe da nik akitzeko (bukatzeko) momentua. Baño lehenago nai nuke deseiatu denei pakea eta zoriona biotz-biotzez. Agur, bertze bat arte.

TIBURCIO SANZBERRO



Mutil gazte auek Italia'ko mugan daude. Bi milla metro alturan. Bocazioa bear du an egoteko. Sosa bai, sosa asko, bañan nola irabazi ta?

Mutil asko mendietan. Bañan nun? Ez da erraxa au jakitera. Gure mendiek zelayak dire mutillak dauden mendien ondoan. Bi milla, iru milla metro altura. Lan toki batetik bestera egun, bereun kilometro batzuek Lourdes'ko ondoan, bañan besteak Italiako mugan.

Aspaldi joan bearrak, bañan ezin. Bide luzea? Bai. Lau milla kilometro ibilli gera. 264 mutil ikusi ditugu, ogeita iru lan toki edo lantegian. Lan zalla denok ikustea. Urrun eta zabaldurik daudelakoz; asko, ez dakizkigun nun diran.

Zer gisa dauden? Geyenak konten daude; beste batzuek, ez: Kable txarra, toki txarra, gutxi irabazi, urrun... Arrazoya dezute: erreminta txarrakin ezin lan asko egin; zuen lana ez da askotan diruarekin pagatzen; urrun, orixe da urrun...

Osasunez ongi dire. Joanden urtean zortzi mutil il ziren; aurtan Jaungoikoari esker, denok sano daude.

Mutillen nagusiekin ere egondu gera. Oso ongi portatu dira. Nai gendun jakitera auek nola zauden, mutillak zer erraten zuten, zer nai duten... Uste degu modu ontara laguntza geyago izango dezutela.

Gu konten etorri gera. Mutillak oso ongi portatu zaizkigu. Eskerrak mutil guziei.

Urrengo aldian esango degu, zertara joaten geran apaizak mutillak ikustera, zer egin ditezken geyago laguntzeko, gu bakarrak ote geran mutilletak oroitu bear degunak, eta beste gauz asko.

AGUR

ARTZAI EUSKALDUNAK

Ameriketara gauza aundiak! esana den bezela. Ots aundiak, beintzat. Zeruan sudurrak sartu nahi izuzke fen etxe aundiak; bide luze eta mendi zabalak; neurri gabeko aberastasanak; auskalo nolako azienda mordo eta artaldeak... artzai eskualdunadako.

Lanik aski emaiten zidan, garai batez, Amerika orrek... An gauza txikirik ez ote? Laneko ta arropa zikinak zer egiten ote dituzte? Maiak ez dute izango autsik, eliak

xabona ibiliko dute atzetik, txakurak ez dute jasoko ankarik... Eta bertsoak! Nun ote, gose zimurrak aterazten dituen bertso aberastak? Nik beti esaten nuen Amerikak etzirela neretako eginak. Haurren gauzak.

Ongi gostaia dut, gero, kezka auek guziak beren lekura ekartzea. Ez uste izan, dolarren baratzean sartzea ain aisa dela. Bi atari bada, gure kanposatutan bezela: bat aundia eta bestea txikia.

Atari aunditik sartzeko ortzak zortz erakutsi behar dira edo ez dago sartzeko. Bestela, badakizu: ikusi ta kanpora, elizan txakurak bezala. De Gaulle, mutil aundia baita —eta ortzak ere baduzke—, parepare zabaldu zioten ataria; eta behar bada aunditu ere bai! Gero, bere txera itzuli ta lenbiziko gauza, sudurreko aizearekin amerikano guziak aizatu zituen. Zer mutilla!

Atari txikia, ortzik gabeko adiskide zaharrendako dute; ez baidute ozkarik egiten! Aga aundi bat emana du eta nekez zabaltzen da: mese-dez bezala. Ez uste izan, an ere nahi duen guzia sar daikenik! Ori bai; atari txikitik sartzan dena txakur bat bezala mendira botatzen dute, eta ez dezan belar gehiegi jan, gañera, an egoteko denbora neurtzen diote. Ortzak erakusten asteko, beranduegi. Atari txikiko aga aundia an ez balitz!

Ama onaren semeak atarixka ortatik sartzan ikusiak ditugu. Ezurak mendian uzten ere bai!

Artzai batek irabazten dituen 225 pesoak, mai gaintetik txakur goseari botatzen zaizkion ogi apurrak bezala dira, ango irabazbidean. Zazpi dolar, ogeitalau ordurendako! Eta angoak egin nahi ez duten lana... Gero, New York'en abiona artzako gau batez lo egitea, amar dolar gostatzen zaie.

Eta beste lan bat asiko balute, poliziak artu ta, kriminelak bezala itzik esan gabe, España'ko bidean ezartzen dituzte.

Azken ontara badirudi zerbait arintzen asi nahi luketela. Nun da bestela Amerika aundi orren bihotz aundia? Beste edozein amaren semeak bezala, nahi badute porruak jorratu ditzatela, bizitzeko, eskuaidun semeak.

J. M. S.



Bi apaizak lan tokian. Mendiko lana ona omen da kilo batzuek kentzeko, bañan... or daukazute egun ta amabost kiloko mutilla eta Oyartzuarra...



Ogeita iru mutil. Egun pozgarria. Meza ederra; euskal kantak meza'ko denboran; eta au milla eta berreun kilometrorra. Bazkari ederra hotel batean, eta aupa motel, txanpan ondorean...

LIBURUAK

LOS VASCOS EN EL MAR



Iruñeko seme zintzo den Karlos Klaveria jaunak bere laugarren liburua idatzi du; beste lenengo irurak bezelakoak Euskalerrinari dagozkien gaiak arturik. Lengo irurak auek dira «Niebla en el alma», «Leyendas de Vasconia» eta Relieves del Genio Vasco».

Liburu berri onen gaia: Euskalerriko semeak izan dituzten ibilla'ndi eta istilluak; arrantzaketak, lapurkeriak, goraberak, eta mende mendez pasatu dituzten gertaerak. Liburu eta artxiboetan baeratuak daude gure itxastarren berri, zeatasun eta jakingai guziak. Kleberiak bildu du liburu ontan. Erdera errezean izkribitua, gogoz irakurtzen dena.

Bejondeizula Klaveria Jauna, segi aintzina zure Euskalerrinari buruzko merezidun lan ontan, eta «ongi etorria», guk emendik ematen diogun bezela, gure Liburu Saltokietan irakurleak ere eman dezaiozela. Iruñeko Aramburu Moldiztegiak txukunki argitaratu du.

ERRIZ - ERRI.



SALDIAS

EIZTARIAK. EIZTARIEN MEZA

Ezin-egon gogorak artzen ari ditu. Begiak luzaturik alde batera eta bestera begira ikusten ditugu, naiz oraindik usuen aztarrenik ez izan ta ere.

Beste aldera berriz, azkonarroa Amets-aldean gaubero yanalditxoa egiñez omen dabil. Bi Saldiztar an ibilli dira aren atzetik, eta gaba batean azkonarroaren orde zeri bat arapatu omen zuten.

Eiztarien Meza emen ez dezakegu gitxiegi diralakoz. Doneztebe'n goizeko bostetan izango omen da. Eiztariak larunbate atsaldean ere igandeko orde entzun dezakete, igandeko bezala ematen den Meza. Meza era ontan emanen omen da Doneztebe'n larunbateko atsaldeko zortzietan.

EUSKARA ERAKUSTEKO ESKABIDE MADRILLERA

Gaur zortzi, Loyola'ko San Inazioaren Santutegian, Aita Larramendi zenaren illik berreun urte bete-zearen omenaldian bildu ziran Euskaltzaindikoak (Euskal Akademikoak) eta bertan ontzat eman zuten Madrilgo Agintariari eskatzea euskara euskal errietako eskola guzietan erakusteko eskubidea erderarekin batera.



BAZTAN

Iruñe'n yokatutako Euskal Jolasen Txapelketan Nafarroa Nagusi gelditu zen eta garaipen orretaz

baztandarrek ere badugu non poztu, Nafarroa aldeztu ta defenditu duten bi sokatirari taldeak baztandarrak baitira, gazteen taldea denak elizondarrak eta adinetakoak elizondar ta elbetearrak naste. Bi talde oiek Txapeldun atera ziren urrezko medallak bereganatuz. Trinketeko eskuzko partidetan aritu ziren naparrak ere baztandarrak ditugu eta lauak erratzuarrak. Gure pilotariak gipuzkoarrarekin galdu zuten baina alae Nafarroa'ren izena ongi goraldutu zuten zilarrezko medallak erdietsi zituztela. Zorionak baztandarrei. Noiz ikusiko ote ditugu Euskal Jolas oietan zazpi aurrideak bateraturik? Orduan bai izanen litzakela egiazko Euskal Olinpiada.

ERREGEBIDEAK

Baztan ere emeki emeki aintzintatuz doaie, gaurko egunean ain beharrezkoak diren bide zabalak bizi molde berriak agintzen du. Orai arteko nekeak ta ibilaldiak, etxetik erriraño bi edo iru orduko bidean oñez, etxean eri bat dutela eta mediku ta sendagaien beharretan, norbait il urren dagola ta Apeza urrun... zer naigabeak dakartzkiten gisa ortan bizitzeak.

Orai berri on bat badugu, Beartzun ta Orabidera erregibidea edo karretera egin beharra dutela. Baztan'go Balleak eta Diputazioak lan ortan astekoak dire eta bi bide zabal oiek egitea 14 milloi pezeta kostako omen dire, Orabidetar ta Beartzundarrentzat aurrerapen izigarria da, orai arteko ordu terdiko bide ori gauza utsean geldituko da naski, erran beharrik eztago Beartzun'go 40 baserriek atsegin aundia artuko dutela eta bai bertze aunitzek ere.

Oraindikan auzo aunitz badira Baztan'en erregibiderik gabe oien artean, Aritzakun, Iñarbegi eta Iruñe'ko errekekakoak, baina oiek guzkie ere noizgaitere eginen dire, denbora lekuko.

IZETA

SUNBILLA

Sunbilla Bidasoa'ko ugaldetazte-rrian dagon erri polit bat da. Milla bizi-lagun baditu, ta oyetatik erdiak baño geyago baserritan bizi diranak.

Sunbildarrak, napartar on bezala, euskeraz itz egiten badakite. Mintzaten direlarik, bersolariak iduri dute, erdi kantari aritzen bai-dire.

Sunbillako erria bersolari ta aizkolarien artean ezaguna da, baño baita ere «diplomático» artean.

Tanger'ko lurraldean Españaiko gobernuaeren ordezkaria (representante) sunbildar bat da, Taberna'tar Jorge Jauna. Aintzin ortan Donostitik Tanger aldera joan zan gizon emakume talde bat; talde onetan Basarri bersolaria zan. Aunitz leku ikusi ondoan, Españaiko gobernuaeren ordezkari'ren etxera oso konte yoan ziran. An arriturik gelditu zan Basarri, ikusi bai zuen Jorge Jauna euskeraz mintzaten ari zitzaiola.

Taberna'tar Jorge Jaunaren anaya Vicente Jauna ere diplomatikoa izan zen; oso gaztetik baliyo aundikoa zan; Buenos Aires'an ogei ta bi urte zituala Españaiko «Consul» izan zan. Orain dela ogei urte pasa il zan, eta orduan etzitian oraindik berrogei ta amar urterik.

Bertze sunbildar Ibarra'tar Simon bersolaria da, eta bere izen-goiti «Zubikoa» da. Gazteaga izan balitz etzan arritzekoa izanen Naparroko bersolarien txapelketa irabaztea.

Nork ez du ezagutzen Latasa aizkolaria? Euskalerrian aizkolari onak izandu dira, bañan Latasaren parekorik billatzea zalla da.

Latasa'z gañera bertze aizkolariak badire: Arrechea, Juancorena, Zubietia... Arrechea Españaiko aizkolari gaztetxoan artean bi urtez txapel-dun atera izan zan. Yoan den urtean berriz Donostiko plazan San Anton egunean Españaiko aizkolari-rien txapelketa yokatu zan; Arrechea, langarren gelditu zen; ta Patxi Astibia irugarren. Aurtengo Txapelketan berriz, bosgarren.

ESKOLA PROFESIONALA

Antziñako urtean bezala Irun'era ibilketu da aurten autobus bat egunero. Arat yoaten ziren mutillak eskolan bi ordu pasatzen zituzten eta bertze bi ordu pasa tallerran. Sunbillatik aurten iru lagun izan dira eta ongi iruek esamiñetan atera dira. Zorionak!

BIDASOA



LEITZA

SEBASTIAN IRURTIA ESKOL-MAISUARI AGURREZKO BESTA


«Esker onekoa ezdena ezta ongi jaiola», ala dio esaera zar batek. Baño gurea errian ezta olakorik gertatzen; atzoko jaijan ola erakutsi degu. Bazirudin Jainkoak ere lagundu egin nai ginduela agertu zan eguraldiarekin; gure Leitza apaindu egin zan. Zer kolore bere belatzetan, balkoetako loretan, umien arpegitan eta etxeko txuri-beltzetan, oriek denak biotzeko pozakin nastuta izandu ziren.

Jai onen prestaera gure maisuak merezi baitzuen, ainbeste lan, kezka ta zoritxar pasatu ondoren gure mutillak aurrera ateratzeko, ta ongi nabari da benetan lenbiziko lan egun ontan egin genduna: Meza eder bat entzun, apez jaunak sermoi bikain bat esanda, kantariak ederki abestuz (kantatuz). Gero pake ta umore ederrean plazara jexi ta ezpatadantzarien dantzak ikusi, andik bazkaltzera ta, nola ezi, au bai agertu zala erriko eskerrona, itz gutxi-kin: erriko senide bakoitzetik bat edo bi, gizaki edo emakume, beren «agurmena goxo» agertu zioten Sebastian maisu Jaunari.

Egun onek izan dezala beste olakorik, naiz beste bat izan «agur goxo» egin bear zaiona ta olako pakean igaro dezagun.

KATTALI ASTIBIA LARREA

NEKAZARITZA ETA ABEREAK.



BELARDIAK

Azkenaldi ontako bero gogor ok, utzi dute beren ezagun bidea gure lurretan; euri gabeak, asko bota bai zun ere bolada batean, erain diote arto, banabar da barzetako lursagarrari... oraindiano ongi zetoztenak.

Dagonilla'ren erditik gaurko egunetaraño, oso legortuak toki askotan, beste batzuetan erreak. Ernaiarazi gaitu gauz batek, eman zaizkioan ongariak. Ukulluko ongarriz gañera, geienak ez diotela bota autsongarriak. Nabari da argi ta garbi. Beren garaian bota ziotenak autsa, ez bakarrik bildu dute belar ugarigo ta obeak (garrantzi aundi duna ohea izateak), lortu edo iritsi ere belardiak ainbeste ez legortzea ta gutxiago erretzea.

Ukullu-ongarria bearrezkoa da zer nai erabilli bear diran gure lurretan, ba autsongarriak berak, ez bai dute lurra jartzen berenez, bear dan eran aurretik edo ondoretik ez baldin badie gorotza edo simaurra botatzen.

Bai baño ukullu-ongarria, berez ain ona izan arren ez da aski, ugaritau aundi duna bota ta ere. ¿Zergatik? Begira, lurra ustelduko du zinetan, gauz bearrezkoa lurra samurtze au, obeki busti dedin ta landareak goxotasuna izan dezan bizitzeko, ala arnaria ugarigo eman dezan, eusten bai dio ezetasunari luzaro, baño ongari onek ez daramaki berekin kare, fosforoa ta potasa, oso gutxi ez ba da, beñere ez gure lurra bear luken aña, eta nola ez baño aski belarrentzat eta beste gañerakoentzat, ortik dator fosforoa, karea ta potasan bearra. Autsongarriok botatzen bazaizkio lurri bere garaian, lurra zenbat eta samurragoa ukullu ongarraren bitartez, orduan da uzta ugarigo ta ohea arnaria. Urri-belarra esaten diogu bigarren belarrari alderdi otan, baño belar onek ez dauka zergatik urria izan, guk ala nai ez ba degu. Gure lurra beartuak dauzkagu aspalditik, kenduaz gatzelako, gutxi ordainduaz geienean. Lurra ez ba dauka berekin landarea asetzeko, gutxi emango du ta ematen duna ere indar gutxiokoa, ez baitu non janik arkitu bear zun mallan, ta bizitu ba da ere doi-doi, porru txikiak kenduko daizkiogu.

Ondore otatik atera dezagun zerbait onura. Begira zaigun udazkene-ko ongarrizeari gure lurretan, batez ere belardietan gure alderdi otan. Orain, emendik Eguberrietara da, bota bear zaien garaia, fosforoa ta potasa. 500 Kg. «Eskorias Tomas» auts beltza da, ta 150 Kg. potasa, Ekta-reako, urtero bota ezker, ez dijoa gaizki. Belarrak ez du bereganatuko dana eta ala pixka-pixkaka jantziko ditugu lurra urte batzuen buru, gutxi duna eduki bear duen malleraño, non, udazkeneko legorten bildurak astindu ere, oso-osorik ez ba ere, bai ordea laute'tik iruan. ¿Gutxi al da?

Bear da lortu belardiak iru aldiz moztea, belar obekin gañera. Zati edo sail txikiak eman dezake iru ta lau aldiz ebakiz, sail aundiak bein bakarra moztuaz baño geiago. Au etxera belarra bildu bear danean, eta berdin bearrezkoak, beik berak bildu bear duenean, on bai zaie belar beratxa, indartsua ta beti berria. Gai ontaz jarraiko degu bere garaian.

JOSHEBA

Gure baserritar ta nekazariak

Auxe da gaurko egunean nekazari-ek esaten dutena: «nekazari jendea baño arlotegorik ez da inor».

«Arlo» itz onekin bear bada ez dute esan nai itzez-itzez, zoritxar, utskeri edo orrelako beste zerbait, baizik, nekazariak ta baserritarrak baño neketsuago, zorrotzago ta arrastago ez dela inor bizi.

Ez dakigu etorkizunaren berri. Bañan, gaur, gaurko, arrazoi ederra badaukate gure baserritar ta nekazariak. Argi ta garbi dakiguna da baserrita utzi, nekazaritzakoa utzi ta or barna dijoatzela famili sail ederrak. Eta au ez bada, etxalde ta maiorazgo askotako seme ta alabak, mutilzar ta neskaraz gelditzen ari dira ez dutelakotz ikusten baserritarren etorkizunik. Ez du inor ezkondu nai baserrira. ¿Nun dago errua? Zer egin? Nundik asi? Nola jarrai?

Industri gauzak indar aundian sartuak daude ta ongi dijoaz.

Dendetako ta komertzioetako jendeak, orain bezala ez dira sekulan bizi izan. Gauzak urrutira ikusi dituzte eta aintzina, aurrera juañ dira. Gaurko egunera daude.

Gure baserritar-nekazariak berriz, zalantzetan daude: erenegun gaizki, atzo okerrago, gaur juxtu juxtu bizi, ta biar il. Orrelaxe bizi da gure baserritarra. Industriak, komertzioak eta beste lanbide guztiak, bestelako aurrerapenak eta laguntzak arkitu dituzte.

Nekazaritzari buruz amets ta itzaldi franko egiten da: elkartekooperatibak egin bearrez; erretzatsunak arkitu nairik; egunera bizi-

tzearren, bañan... agitz bare, ttantto emendik ta ttantto andik, ikusten dira laguntza, erretzatsun ta aurrerapen oiek.

Gure errietan nekazaritza bearrezko degu. Garrantzi aundienetako gauz bat degu baserrita, nekazaria. Eta gure baserritarrek, nekazariak, milla oztopo ta ezbear arkitzen dituzte zerbait egin nairik ere. Nekazariak, baserritarrak, bereak izan bear ditu abereak edo ganaduak. Eta orretarako mendiaz baliatu bear. Abere mota guztiak ugaldut bear badira, au da, gure lurralde auri egoki zaizkionak: beiak, ardiak, zaldiak eta txerriak, zergatik jarri trabak, oztopoak?

Zein dira oztopo ta traba oiek? Lenbizikoak ta inportantziakoenak, ardienak eta beienak. Ardienak: mendi liberik ez badago, ardi-rik ezin euki. Beienak: iratze tokiak (irazelaiak), garo tokiak piñuz betetzen badira, zerekin egin ongaria (gorotza) alorrek eta sorok gorotzatzeko, abonatzeko? Erribera'ko lastoekin? Ura nun dago? Eta gero noraraño eraman bear?...

Baserrita asko iratze adar bat gabe gelditzera dijoaz. Etxe atariraño itxi dizkie bazter guztiak, alde batetik diputazioak eta bestetik erri bakoitzako aiuntamentuak. Gisa ontan nola ugaldut abereak? Nai ta nai ez erretzatsunak eman bear zaizkio baserritari, eta ez itto, ez estutu inondik-ere. Lasaitasuna ta bideak idekiak arkitu bear ditu.

GORTARI UGARTE'TAR JUAN

NAPARROKO BERRIAK



Diputazioko Jauregian egunkariei (periodikueri) jakinarazi berrietatik, auek aukeratzen ditugu:

Etxe-lurra, orube ziren lengo eskuetan. Orai garestiago baidira, ez dakit nola esan beharko genieken. Nola nahi dela, zerga (kontribuzio) berri bat atera dute, bat-batean urrez jantzi diren lur oiendako. Langillen bizitegiak baliatuko dira ortaz.

Industri kontua aurrera dijoa. Azienda kontuan ere zerbait egin gogo dute. Laguntza pixka bat elitzake gaizki etorriko. Eskutik utziak dira.

Sakana, Barrankako ikastetxea laister asiko dute, naski. Lakuntzan egiteko erabakia artua da.

Eginak direna: fruten ikusmirako guarda-etxea (aduana), Noain'en; eta bigarren mailako ikastetxe (instituto) bat, Tudelan.

Fontellas (Nafarroa bai da!), eta Leitze izango dira nekazaritza eta abere kontuan lenbiziko eskolak ikusiko dituzten gure erriak.

Ez daude lo Erribera eta Sakanako bideberri lanak.

Eta orai, Madril'go diru kontua. Zenbat? Nola? Gure Diputazioak asia du elkar-izketa. Ongi dijoakigula!

Azkenekotz, aipatu beharra dugu Fraga Iribarne'ko Olite'ko errege gaztelura egin duen itzulia. Iribarne'tarrak etziren arrotzak Erreinu ontan. Ongi-etorri, aintzinekoren izenean!

De la Conferencia de Prensa últimamente celebrada en la Diputación extractamos las siguientes noticias:

Se ha establecido un impuesto sobre la contratación de solares, destinado en gran parte a ayudar la construcción de viviendas sociales.

Sigue avanzando mucho la industrialización.

Se preparan estudios para fomentar la ganadería.

Empezará pronto la construcción de la Escuela de la Barranca (Lacunza).

Se han terminado: la Aduana de Frutas de Noain y el Instituto de Tudela.

Se ha empezado la Escuela Agrícola de Fontellas. En Leiza empezará el funcionamiento de otra Escuela Agrícola-Ganadera del Patronato Amabal.

Continúan las obras de carreteras en los ejes N.S. y E.O.

La Diputación empieza las conversaciones con el Ministerio de Hacienda (Convenio).

Hemos de reseñar la visita a Navarra del Excmo. Sr. Ministro de Información y Turismo que inaugura un Hotel en una de las dependencias del Castillo de Olite.



Franzisko Xabierreko - aren euskarazko biografia berri bat

Leenago baginituen Xabierren erdarazko bizitza onak; alemanez eta frantzesez bereziki, SCHURHAMMER eta CROS-enak. Bai eta euskarazko labur-labur bat, LIZARRAGA Elkano-ko erretorearena. Beste euskarazko bat, nafar batena hau ere, aipagarri da, bere euskara aberats eta ederrarengatik, Arizkongo semea izan zen Franzisko Lapitze idazlari sonatuak izkiriaturik, BI SAINDU HESKUALDUNEN BIZIA izenburuarekin.

Orai beste berri bat agertu zaigu, P. ARRADOY euskal idazlari ospetsuak egina, eta bere frantzes itzulpena dakarrena bide batez, orri bakotzeko azpiko aldean.

P. NARBATZ da egilearen egiazko izena: Baionako Bikario ohiaren liburua, SAN FRANTSES IATSUKOIA — Biographie basque de St. Francois de IASSU et XAVIER, deitzen da. (Edic. IZARRA. — S. Sebastian).

Edergailuz ornitua, nafar saindua ibili tokienak; hala nola Jatsu herriarena, Azpilkueta, Javier, Iruñe, Parise, Goa eta abar. Amultsuki kondatzen dauku ARRADOY-ek sainduaren aurtzaroko gertakari hitzak: Gaztelarekilako guduak, eta Javier-gazteluaren eta Nafarroko Erresumaren suntsimendia.

Gero, begiz bezala, pasatzen ikusten ditugu, bere fameliako jendeak, guraso dohakabeak, anai-arrebak, osaba Martin AZPILKUETA Irakasle ospe haundikoa; XVI-garren mendeko gisara pintratuak, eskualdunki, orduan zorionez erriko jenden izkuntza, euskara bai zen Nafarroa geienean.

Ikusten ere degu egilearen euskara garbi eta ximenean, Parisera-ko Xabierren joanaldia; hango bere traba, adixkidantza eta jostetakin, SORBONAN ikaslari zagoenean. Gero Santa BARBARA Ikastegi-ko Irakasle zelarik, Eneko Loiolako-ren ezagutzak egiten ditu, eta Nafarroko guduak nolazpait aantzurik, sarean biltzen du azkenik harek, Enekoren jite aidor eta nekagaitzari eskerrak: ondotik finkatuz beste lagun batzuekin, Jesusen Konpañia eta Lagundia.

ARRADOY-ek euskal izen zaar horren ordez, Iñaki izen berria derabilla. Denbora hartako izkiritutan haatik, ENECO izena agertzen da, eta orai arteo irauten du bizirik, Enecotegui deituran eta Eneko-nea etxe izenean bezala. Euskaldun izen zaarrik baldin bada, ENEKO da bat, Nafarroako lehen errege ARIZTA-k erabili zuena.

Xabierren euskalduntasuna ere erakusten du autoreak, orduko herri-izkuntza euskara baizen hemen. China-ko Isla-ugarte hartan azkenetan zagolarik ere, bere azkeneko otoiak, aurtzaroko euskaraz egin omen zituen.

Indiako misiolari haundiaren nekeak eta kontrakarrak agertzen dira, portugez jauntxo zikoitz haiek; bainan oroz gainetik sainduaren jende-arte negurrigabekoa, eta klase guztikoekin erakusten zuen jendetasuna.

Xabierren iduriak ahulkoak iduri zaizkigu: alta bada bat, GOA-n ateraia hil-kutxa ideki zutelarik, eta egiazki euskaldun baten burua erakusten duena. Euskara ederra eskeintzen digu ARRADOY-ek, erraneraz aberatsa eta erreza irakurtzeko. Estar sobre ascuas adiarazteko adibidez, ULITXETAN EGON irakurtzen dugu; eta Aqui hay gato encerrado errateko, dio: KATU HORREK BADU BESTE BUZTANIK.

Euskara funtski, bai eta frantsesa, gozatu nai dituen euskalzaiek, liburu xarmagarri hau eskuratu dezala.


A. APAT-ETXEBARNE

KISU LABEAK

Gure eskualden an emenka bareiatuak, kisu labeak non nahi ikusten ditugu Badirudi orai orotzapan bat bertzerik ezteela, or baitaude denak alfer beren lanaz atzundurik eta aintzinat ere orre-

re dena arriz eginak eta eltzearen gisa barna utsa ta borobila Zenbaitzuk azpitik goitiraño zortzi metro luze izaten dituzte eta borobil utsaren diametroa bortz metrokoa. Beitiko aldean sarbidea badute ar-

ko,ko egur pillak egiten dituztela, abar zamak ere izigarriak izaten dire berreunetaraño ta gehiago ere, ortaz landera ote ta isetsa pileka inguruko merdiak garbitu artio Erreki ausarki bildu ta ondoan, argin batek beitiko arkitik kisu labearen barnera sarturik kisu arriz gorape bat moldatzen du arriak behar diren bezala kokaturik. Azkenean arkuia estaltzen dute leio ttipi bat bakarririk uzten dutela, au lau kantonekoa eta metroerdi kuadroa izaten du, leio orreri "agoa" deitzen zaio eta ortik sartzen dute errekie barneko gorape- ra. Lan oiek egin ondoren kisu- labea kisu arriz betetzen dute, hori gañetik eta bete bete egin arte mukuru aundi bat eginik iretze meta baten iduri eta azkenean lana bururatzeko gañeko tuturrua- rren erdian elorri xuria paratzen dute bizker-bestaren ezaugarritzat. Su emateko dena prest dago eta gizonak an etxeko nagusiaren agin- duaren zain. Euskaldun oiturari yarraikiz erriko apez yaunak kisu labeari bedeikazioa ematen dio eta otoiña egin ondorean etxeko nagusiak su ematen dio, lehenik ote ta isetsarekin eta abarrak ere ago- tik sartuz. Sue amaten denean eta indar pixka bat artzen due- nean lana bide onetik as'a da eta orduan egurra ta abarra gelditu gabe su ikaragarria egiten dutela. Gisa ortan zortzi egunez gau ta egun beti su bizian gañeko tutu- rruko arriak gorritu artio Lan or- tan gizonak txandatu aritzen di- re, lau gizon aldien eta talde ba- kotzak 12 ordu egiten dituztela,



Kisu labearen ganeko tuturrue, onborrez inguratuturik.

la egon beharko baitute iduri bai- tu kisu egite orrek betikotz suntsitu egin dela. Bainan oraindikan eta noizian bein Baztan alde un- tan lan hori egiten dute, yaz gure eskualdean bi kisu labe sutan ikusi baititugu. Kisua ona eta arras beharrezkoa dela eztago ukatzerik gure lurra aunitzez geiago ema- nen lukete kisuz ongi orniturik ba- leude, hori denok badakigu. Le- nagoko denboretan kisu aunitz egi- ten zen eta gure aurtzaroen ere zenbat eta zenbat olako ikusi ote ditugu. Orai gauz guzietan bezala ortan ere aldakuntza aundiak ba- dira, gaurko egunean aisetasun aundiak ditugu eta aurrerapen oie- taz balietuz emengo belai, landa ta alorrek bertze gisa batean ongarriz- ten dire.

Kisu-labeak zilindro borobilak di-

kuaren gisan egina, metro bat lu- ze ta lauetanogei cm. zabal izaten dutela. Aitzineko aldean legorra ongi egina eta behar diren guzie- kin antolatuturik, petrala, kaprioak, atal-burue eta tellatua, tellekin edo arri losa zabalekin. Kisu labearen



Kisu labeko gorapean, bazkaldoan etxekoandre gaztea bere aurtxoekin eta gizon langileek saietsetan yarririk, atsedan artzen dute.



Juezak.—Nola esan dezakegu aitzurrez jo zaitula emazteak buruan, eta markarik ez duzu?

—A jauna! Baño ikustekoa da aitzurrari kendu dion puska!

Lehertua iduri duk, goizetik, Patxiko! Ez al duk lorik egin?

—Lo bai! Baño, iru gurdi egur atsi ditudala, amets egin diat...

Aizu nextato! Zenbat urte dituzu?

—Ogeitabost.

—Duela iru urte ere orixe esan zenidan!

—Bai, jauna. Ez naiz ni, gaur gauza bat eta biar bestea esaten ibiltzen diren neska ergel orietarik, ez!

Medikuan.—Otza al daukazu, gorputz guzia barna?

—Bai jauna.

—Ortzak ere dal-dal egingo dituzte, naski?

—Ez, jauna. Arramaiuan utziak ditut...

azpitik eta lurpean zazpi edo zortzi metro luzean badu "auskoa" deitzen diotena ortik zirikatuz suak atsa ar zezan eta bai errautsa ere ortikan ateratzeko, "ausko" au ere arriz egina izaten da eta sarbidea lau kantonekoa gizon bat aisa sartzen ahal dena.

Kisu-labea erretzeko sasoñik egokiena arto ereiteko garaia izaten omen da, Maiatzeko leñabiziko egunak. Neguaren asmentatik asten dire egur garraian etxeko ariz- tiek murriztuz eta gaztainondo zahar ta mota guzietako egurra prestatuz. Ecur guzia kisu labearen ondora ekartzen dute an lerro luzetan pileturik 100 metro kubi-

alaxe gelditu gabe eta aldizkatuz 190 ordu baño gehiago osotzen dituztelarik. Sua behar dute arreta aundiarekin zaindu beti su bizian egon daien. Lan bortitza bai zinez bero ikaragarria yasaneez beti su gañean, noizian bein eta hori berek dakitelarik gizon bat auskoaren zilotik sartzen da eta aga luze batekin sua zirikatu ta denbora berean autsez garbitzen du. Erabiltzen dituzten lanabesen artean "kuxine" da behar beharre- na, au aga luze bat izaten da muturrean bi adarrekin sahardearen gisan, unekin errekie agotik bar- nera bulketzen da.

(Datorren illean bukatuko da).

BOLETIN DE INSCRIPCION

Don

con domicilio en la localidad de

Calle N.º

desea recibir a domicilio y gratuitamente el Suplemento «PRINCIPE DE VIANA».

Segalariak



Yoan den Urriaren 16'ean Hernani'ko Jauregi baserriko belaiean, Espai'ko segalarien Txapelketa yokatu zen. Bereartan ari izanak dira Gipuzkoa'ko lau segari oherenak. Ordu batez belar geiago ebakitzen zuena Txapeldun. Borrokaldi ederra izan omen zen, lau gizonak go-

gor aritu zirelarik borroka latz eta izaten ahal den atakatuena egin zutela. Ordu bateko lan bortiz ortan arizan ta ondoan leiaketa olaxe gertatu zen:

Lenbizikoa ta Txapeldun. Bernardo Irastortza irundarra. Ebakitako belarrak: 2.655 kilo.

Bigarren. Benito Otegi astiasu- rra. Ebakitako belarrak: 2.637 kilo.

Irugarren. Migel Ormaetxea orein- daindarra. Ebakitako belarrak: 2.406 kilo.

Laugarren. Manuel Ibar Urtain arruatarra. Ebakitako belarrak: 2388 kilo.

Lenbizikoa ta bigarrena estu ta larri ziren 12 kilo belarren aldega uza utsa baita ordubetean bururik altxa gabe aritu ondoren. Iruga- rren ta laugarrenak ere borrokaldi gogorra egin zuten Ormaetxea'k 18 kilo belarren alde bertzerik etzion kendu.

Yende asko bildu omen zen eta Leiaketa ere denen gogokoa izan omen zen.